

ASIGNATURA: [Lengua Vasca \(modelo A\)](#)

CURSO: 1º BACHILLERATO

JOLAS GAITEZEN!	ELEMENTOS CURRICULARES
Nork ez du jolastea gustuko? Izan ere, gozatzeko, ongi pasatzeko eta lagun giroa sortzeko baliabide ezin hobea da. Hori dela eta, proposamen honek jolasa du oinarri. Ikasketa egoera honek helburu du Batxilergoko 1. mailako ikasleek jolas bat azaltzea eta berriak ezagutzea. Horretarako, hainbat jarduera ezberdin proposatzen dira, aniztasunari erantzungo diotenak. Lehenik eta behin, oinarrizko funtzio komunikatiboak landuko ditugu (deskribatzea, jarraibideak ematea, azaltzea eta abar). Bigarrenik, ohiko hiztegia eta espezializatua birpasatu eta ikasiko ditugu, egunero gai bat proposatuz eta denon artean gai horri buruzko zerrenda bat osatuz. Binaka, ikasitako guztia praktikan jarriko dute. Hirugarrenik, jarraibidezko testuen ezaugarriak eta egitura landuko ditugu. Horretarako, ikasleek, taldeka, joko bat eta haren argibideak bilatuko dituzte Interneten, eredu moduan, eta ongi aztertu eta ulertu beharko dituzte; izan ere, irakasleari azaldu beharko diote zein aurkitu duten eta nola jolasten den. Azkenik, ikasle bakoitzak gogoko duen joko bat aukeratu eta azalpena prestatu beharko du, irakaslearen laguntzarekin. Ikasketa egoera honen azkeneko ariketa joko bat ikaskideei ahoz azaltzea da. Idatziz eta irakaslearen laguntzarekin prestatutakoa azaldu beharko dute, ikaskideek jolas berriak ikas ditzaten. Kontuan izan beharko dituzte ahozkoitasunaren ezaugarriak (intonazioa, azentua, erritmoa, fonetika eta abar). Azalpen bakoitzaren ondoren, jolasean arituko gara.	COMPETENCIAS CLAVE/DESCRIPTORES CCL1, CCL2, CCL3, CP1, CP2, STEM 1, CD1, CD3, CPSAA1.1
	COMPETENCIAS ESPECÍFICAS 1, 2, 3, 4, 5
	CRITERIOS DE EVALUACIÓN 1.1, 1.3; 2.1, 2.2, 2.3; 3.2; 4.1, 4.2; 5.3
	SABERES BÁSICOS A. Komunikazioa B. Eleaniztasuna